

Beste txakur batzuekin, pertsonekin edo bestelakoekin arazoak izan ditzakete txakurrek. Horiek alde batera uzteko, lanketa sakonak egin behar izaten dituzte txakur hezitzaileek. Haien ustez, komunikazioa izatea eta harreman on bat sortzea dira animalia horiekin elkarbizitza egokia izateko kontuan hartu beharrekoak.

Txakurrak ere hezi behar dira



Amaia Jimenez Larrea *Lasarte*

Urduri dago Leire Kerejeta gaztea, Jagger txakurraren jabeetako bat. Bikotearekin batera eraman du txakurra GuHau txakur hezitzaileen zentrorara, Lasartera (Gipuzkoa). Txakur arrek gaizki moldatzen da Jagger, eta, galgo bat denez gero, paseoan joatean korrika alde egingo ote duen beldur da bikotea.

GuHauko hezitzaileetako bat da Nora Oteiza, eta dena prest du saiorako. Beste lau txakur gonbidatu ditu saiora, Jagger beste txakur batzuekin harremana izaten has dadin. Hamabost bat minutu

zelaian bakarrik pasa ostein, pixkanaka hasi dira txakurrak iristen. Uste baino hobeto dago Jagger, eta Leire eta bikotekidea lasaitu egin dira. Gustura ikusten dituzte txakurrak.

Bakarkako zein taldekako saioak egiten dituzte GuHau. Txakurrek dituzten arazoak konpontzeko taldekako saioak baliagarriak izaten direla azaldu du Oteizak: «Ondo konponduko diren txakurrak elkartzen ditut; horrela, beren artean ere gauzak ikas ditzakete; beste txakur batzuekin harremana izaten, esaterako». Whatsappeko talde baten bidez elkartzen dituzte txakurrak eta jabeak, eta, saioak ez ezik, as-teburuetan ekintzak egiteko ere elkartzen dira.

Duela bi hilabete joan ziren le-

hen aldiz Leire eta Jagger GuHau-ra, eta, geroztik, astean behin joaten saiatzen dira. Kerejetak ondo oroitzen du lehen saioa: «Bikotekideak ezin izan zen etorri, eta bakarrik etorri nintzen. Apur bat larrituta nengo». Oteizak beste txakur ar batekin elkartu zuen Jagger, eta uste baino hobeto konpondu ziren. Pixkanaka beste txakur batzuekin elkartuz joan zen, eta hobekuntza ikusi dutela kontatu du Kerejetak: «Poliki badoa ere, aldaketa ikusten dut txakurrarengan, eta asko pozten naiz».

Beste txakur batzuekin elkartzeaz gain, txakurrak eta jabeak harreman on bat izatea da arrakastaren gakoa Oteizarentzat. «Nire lana pertsoneri erreminta egokiak ematea da, txakurrare-

kin duten harremanean oreka egon dadin», azaldu du. Txakur bat ulertzen denean, eta ulertua sentitzen denean, jabearekin sortzen den konexioa «oso polita» da, hezitzailearen esanetan.

Ulertu eta onartu

Txakurra ulertzeaz gain, den bezalako delatza onartzea garrantzitsua da GuHauko hezitzailearentzat. Adibidez, setter batek mendian gora eta behera ibiltzea behar duela kontatu du, ehiza txakurra baita. «Jakingo bagenu zein bulkada dituen arraza bakoitzak, hobeto jakingo genuke zein txakur den egokiagoa guk dugun bizitzarako», gehitu du.

Jabearen eta animaliaaren arteko harremana egokia izatea ez da txakurraren ardura bakarrik,

ezta hezitzailearena ere. Lanketa handia eta sakona dela esan du Oteizak, eta jabeak bere bizitzan txakur bat izatea erabaki duenetik txakur horrekin egin beharreko lana ere bere gain hartu behar duela. «Harremana orekatzen denean, txakurrek asko jartzen dute euren aldetik, eta prozesua erraztuz joaten da».

Laura Salvador hezitzaileak ere garrantzi handia ematen dio txakurrarekin ezartzen den harremanari. Betidanik gustatu izan zaizkio txakurrak Salvadorri, eta atentzioa eman izan dio jendeak txakurrekin harremana izateko duen moduak. 2017an egin zuen txakur hezitzaile izateko lehen formakuntza, Madrilen, eta geroztik «etengabeko formakuntza» ari da. Lehen formakuntza